

Miserikordia Etxea



Miserikordia Etxea

Jatorrizko izenburua: *Casa de Misericòrdia*

Egilea: Joan Margarit

Itzultzailea: Juan Ramón Makuso

Argitaratze urtea: 2010

Argitaletxea: Meettok

MIKEL GARMEMDIA

Zapore gazi-goza utzi dit poema-liburu honen irakurketak. Pena da honelako apustu eder bat, gaur egun, euskal itzulpengintzak iritsi duen maila kontuan izanik, honela, besterik gabe, itzulpen-akatsengatik lausoturik gelditzea. Ederra baita, berez, planteamendua: Joan Margarit poeta kataluniar handiaren heldutasuneko poemak ez ezik, JR Makusorekin izandako elkarrizketa baten eta epilogo baten bitartez, haren poetika ere plazaratzea. Ez gara itsutuko ez tematuko itzulpen-akatsen kontaketa, behin esanda aski izango delakoan: hainbat dira pasarteak, non derrigorrez jo behar dugun katalanezko bertsiara esanahiaz jabetu bahi badugu.

Poemei dagokienez, Margaritek berak azaltzen badigu ere nola gainditu zituen, bere ustez, Abanguardistak alde batetik, eta Erromantizismoa, bestetik, nik bederen esango nuke ez duela erabat gainetik kendu kutsu erromantikoa. Egia da, hala ere –eta honetan zintzo jokatzeko duela aitortu behar– nabarmen ikusten zaiola labur eta zehatz izateko joera, ziurrenik lanbidez arkitekto izatearekin ere zerikusia izango duena, bere arrazoitze teorikoez gain. Margaritek berak kontzentrazioa deitzen dio labur eta zehatz idazteko joera horri, azken finean poesia idaztea intentsitate kontua besterik ez ote den planteatuz. Hala, emaitza edo poema zientzian erabiltzen den kontzeptu batekin konparatuko digu, *kutxa beltza*-rekin alegia, bertan sartu eta, irteterakoan, ez baikara, emozio eta bizipen mailan, sartu ginenean geunden bezala sentitzen. Baina efektu horren eragileak ñabardurak eta ahotsa direla esango digu, eta ez gauza berriak. Bat egiten du, gisa horretan, originaltasun-nahiaren zentzurik eza salatze horretan, Borges-en planteamenduekin eta hala esango digu zehatz eta labur hau ere: "Sortzeko, ezer. Aldatzeko, dena".

Margaritentzat bizitza dago lehenik, baita artea bera baino lehenago ere. Eta halaxe islaturik ageri zaizkigu bere poemetan bere bizitzako esperientzia eta sentimenduak, doinu gizatiar bezain malenkoniatsu batez. Behin eta berriro aurkituko ditugu galdu zuen alabaren erreferentziak, ez tristura ezkor batetik baina bai halako tristura samur batetik errezitatuak. Soluzio handietan sinesten ez duen poeta xahar baten ekarria, onena onaren etsai izan daitekeela oharturik eta egoera benetan gogor eta zailetan, are soluziorik ez dagoenean ere, aringarriek duten balioaz konbentziturik dagoen poeta apalarenak. Bereziki nabarmenduko nituzke, alde horretatik *Miserikordia etxea/Casa de Misericòrdia* eta *Aita/El Pare* poemak. Eta halaxe esango digu: "Gaur poesia azken miserikordia etxea da."